



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

1. BILAKATU COVID 19 programa. 2022eko deialdi-agindua.....	3
2. BATERATU COVID 19 Programa. 2022eko Deialdia	5
3. Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako laguntzak 2019-2020	7
4. Gauzatu Industria programa. Laguntza itzulgarriak oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. 2022ko Ekitaldia	9
5. INDARTU Programa, 2022ko Agindua-Deialdia	12
6. BIDERATU BERRIA Programa. 2022 ko deialdia.....	14
7. Klusterren antolakunde dinamizatzaileen programa	16
8. HAZITEK 2022 programa	18
9. ELKARTEK 2022 programa	21
10. Emaitek Plus 2022.....	23
11. AZPITEK 2022 programa	25
12. BIKAINTEK 2022 programa	27
13. Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko programa	29
14. EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzak, Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko	32
15. Urdaibaiko Biosfera Erreserban errentagarritasun finantzarioa galtzeagatiko konpentsazio ekonomikoa eta ingurumen-kudeaketa egokia lortzera bideratutako dirulaguntzak	34
16. Laguntzak garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Toki Erakunde Publikoentzat	36
17. Natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak.....	39
18. Euskadin hondakinen araudia ezartzen eta ekonomia zirkularra sustatzen laguntzeko dirulaguntzak	41
19. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egindako ingurumen-boluntariorazako proiektuetarako diru-laguntzak EAEn.....	43
20. GASTROBIKAIN 2022.....	45
21. BERRIKER - Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak	46
22. Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzak 2022.....	48
23. Ikertalent programa 2022 - Nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren alorretan langile ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako laguntzak.....	49
24. Bioekonomia 2022 - Bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako laguntzak	50
25. Lankidetzarako laguntzak 2022 (2015-2020 Euskadiko Landa Garapenerako Programa	51
26. Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuetan ekonomiaren garapenerako eta ekonomia-dibertsifikaziorako laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PRIBATUAK)	53
27. Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak, G4, G5 eta G6 landa-eremu sailkatuei dagokienez (EREIN PUBLIKOAK)	55



28. 2015-2020. aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen LEADER eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak	57
29. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan sasoiko lana egiten duten pertsonen ostatueterako laguntzak	59
30. EAE-ko landa-eta itsasertz-ingurunea dinamizatuko duten ekitaldi sozialak egiteko laguntzak.....	61
31. ITSASPEN laguntza-programa	63
32. Nekazaritza-sektoreko lanbide-elkarteak (Elkarteak programa)	65
33. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak	66
34. Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa nekazaritzan eta ingurumenean	67
35. Azpisektoreetako minimis laguntza	68
36. Ekoizpen ekologikorako laguntzak	69
37. Ezohiko laguntzak euskal nekazaritza sektorearentzat, Errusiak Ukrainari eraso ondoren ekonomia babesteko	70
38. Ezohiko laguntza, Ukrainako gatazka belikoak zenbait nekazaritza-sektoretan eragindako zailtasun ekonomikoak konpentsatzeko	71
39. Arrantza eta Akuikultura iraunkorra sustatzeko Programa.....	72
40. Flotaren arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko programa	75
41. Tokiko garapen parte-hartzailea.....	76
42. ITSASORATU programa	79
43. Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka.....	80
44. ARDOINB 2022 - Mahastizaintza eta ardogintzako sektorean inbertitzeko proiektuetarako laguntzak, minimis laguntzen araubidea baliatuta	81
45. 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan barne jasota dauden nekazarien eta baso-ekoizleen elkarreentzako laguntzak 2022	82
46. Fruta-eta barazki-ekoizleen erakundeei laguntzak 2022	83
47. Lehiatu Sustapena 2022 - Nekazaritza, elikagai, arrantza eta basogintza produktuak EAEtik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak	85
48. LEHIATU BERRIA 2022	86
49. MAE Sustapena 2022/2023 - Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako eta -ekintzetarako laguntzak	88
50. MAE Inbertsioa 2022 - Mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzak	89
51. BASQUEWINE 2022	90
52. HANDITU 2022.....	91
53. HANDITU INNOVA 2022.....	92
54. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak	93
55. Elkarreak Elikadura - EAEn elikagaien sektoreko elkarte eta federazio profesional eta enpresariak laguntzak 2022	95
56. Euskal Autonomia Erkidegoko animalien elikadurako operadoreen-sektorerako ezohiko laguntzak, Errusiak Ukrainari egindako erasoaren ondoren ekonomia babesteko estatuko laguntza-neurriak buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionalaren barruan	96



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BILAKATU COVID 19 programa. 2022eko deialdi-agindua

2.- Araua

2021eko ekainaren 2ko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Bilakatu COVID 19 programa arautzen baita, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio, produktu, zerbitzu eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Agindua, 2022eko martxoaren 2koa (2022eko martxoaren 10ko EHAA, 50. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201146e.pdf>

2022ko azaroaren 16eko Ebazpena (2022/11/25ko EHAA, 226. zk.) – 2022eko onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205152e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honek abian jartzen duen laguntza-erregimena bat dator eta errespetatzen du Covid-19aren krisiaren aurrean Ekonomia babesteko Laguntzei buruzko Aldi Baterako Esparrua eta, ondorioz, Covid-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko enpresei eta autonomoei laguntzeko neurriei buruzko aldi baterako Esparru Nazionala, Europar Batasunak ezarritako laguntzen tipologiara eta horiek baimentzeko oinarritzko baldintzetara egokituz.

Beharrezkoa da Covid-19ak eragindako enpresentzako laguntza-programa baten deialdiaren baldintzak garatzea, dibertsifikazio- eta/edo birlokalizazio-jarduerak egiten badituzte eta gaitasun berriak garatzen badituzte negozio-lerroetan, produktuetan, zerbitzuetan eta merkatuetan, inbertsioen gauzatze dinamikoa errazteko eta, inbertsioak amaitu ondoren, onuradunek laguntzak emateko kontuan hartutako baldintzak gutxieneko denbora-tarte batez mantentzen dituztela bermatzeko.

Laguntzaren modalitatea izango da laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10eko (enpresa handia) edo % 15eko (ETEak) diru-laguntza ematea, itzuli beharrik gabe.

Jarduerak ezingo dira 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen hasi, eta egun horretatik aurrera egin beharko dira, gehienez ere, hurrengo bi urte naturaletan, ezaugarrien eta enpresa-planen arabera. Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Enpresa handiek 1.500.000,00 euroko gutxieneko inbertsio onartua egin beharko dute, eta enpresa txiki eta ertainek 200.000,00 euroko gutxieneko inbertsio onartua egin beharko dute, enpleguari eutsita. Enpresa handien kasuan, gutxienez 25 enplegu eta ETEen kasuan gutxienez 5 enplegu garbi sortzen dituzten



enpresen inbertsioak ere kontuan hartuko dira, nahiz eta aurretik adierazitako onartutako gutxieneko inbertsioetara ez iritsi.

Diru-laguntzek gehienez ere 1.000.000,00 euroko zenbatekoa izango dute enpresa edo enpresa-talde bakoitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiari izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022EKO DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 130

Eragindako/onartutako inbertsioa: 488.757.853,43 EURO.

Mantendutako enplegua: 24.787 Onartutako enplegua: 1.605

Emandako diru-laguntza ez itzulgarria: 51.984.632,22 EURO.

ERABILGARRITASUNA ETA ERAGIN SOZIALA:

Pandemiak eragin nabarmena izan du gure ekonomiaren produkzio-sektoreetan, ustekabeko agerpen malkartsuagatik eta denboran izan duen hedapenagatik; ekoizpen-sektore batzuen kasuan, baliteke hori datozen urteetara luzatzea. Gure industria, Euskadirentzako enplegu eta ongizate-iturria, ez dago errealitate horretatik kanpo.

Pandemia sortu zenetik, enpresek, langileen osasuna lehenetsiz, hainbat neurri hartu dituzte merkatuaren errealitate berrira egokitze, krisiaren eraginari aurre egiteko eta enpresen biziraupenean sakontzeko.

Programa honek eragin positiboa izan du COVID – 19 egoeratik sortutako beharrianetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako enpresen kopurua	20	130
Enpleguak	400	1.605



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BATERATU COVID 19 Programa. 2022eko Deialdia

2.- Araua

2022eko otsailaren 16ko Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez BATERATU COVID 19 programa arautzen baita, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio, produktu, zerbitzu eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Agindua, 2022eko otsailaren 16koa (2022eko otsailaren 28ko EHAA, 42. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200985e.pdf>

2022ko azaroaren 16eko Ebazpena (2022/11/25ko EHAA, 226. zk.) – 2022eko onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205151e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honek abian jartzen duen laguntza-erregimena bat dator eta errespetatzen du Covid-19aren krisiaren aurrean Ekonomia babesteko Laguntzei buruzko Aldi Baterako Esparrua eta, ondorioz, Covid-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko enpresei eta autonomoei laguntzeko neurriei buruzko aldi baterako Esparru Nazionala, Europar Batasunak ezarritako laguntzen tipologiara eta horiek baimentzeko oinarritzko baldintzetara egokituz.

COVID-19ak eragindako enpresentzako edo enpresa-taldeentzako laguntza-programa baten deialdiaren baldintzak garatu behar dira, baldin eta bateratze eta/edo xurgatze-planak abian jarri ondoren kontsolidazio-jarduerak egiten badituzte, hazkundera bizkortzeko eta ondoriozko enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko.

Laguntzak itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez egituratzen dira, eta diruz lagundu ahal izango dira kontsolidazio-, bategite- eta/edo xurgatze-plana egiteko aholkularitza-gastuak eta kontsolidazio-eragiketa formalizatze notariotza-gastuak, bai eta eragiketa horrek dakartzan inbertsioak ere.

Agindu honen esparruan eman beharreko diru-laguntzak itzuli beharrik gabeko laguntzak izango dira, eta honako hauek ezarriko dira:

- Enpresa handientzat eta enpresa txiki eta ertainentzat justifikatutako aholkularitza eta/edo notariotza-gastuei dagokienez, gastuen % 25. Gastu horiei dagokienez, gastu hautagarritzat hartu beharreko gehieneko kostua 300.000,00 eurokoa da.



- Laguntza jaso dezaketen inbertsioetarako, % 10 enpresa handientzat eta % 15 enpresa txiki eta ertainentzat. Enpresaren berezko baliabideak, diru-laguntzak alde batera utzita, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoaren % 25era iristea, gutxienez.

Diru-laguntzek gehienez ere 500.000,00 euroko zenbatekoa izango dute enpresa edo enpresa-talde bakoitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022eko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 3

Eragindako/onartutako inbertsioa: 1.814.000,51 EURO.

Mantendutako enplegua: 228 Onartutako enplegua: 0

Emandako diru-laguntza ez itzulgarria: 408.112,50 EURO.

ERABILGARRITASUNA ETA ERAGIN SOZIALA:

Pandemiak eragin nabarmena izan du gure ekonomiaren produkzio-sektoreetan, ustekabeko agerpen malkartsuagatik eta denboran izan duen hedapenagatik; ekoizpen-sektore batzuen kasuan, baliteke hori datozen urteetara luzatzea. Gure industria, Euskadirentzako enplegu eta ongizate-iturria, ez dago errealitate horretatik kanpo.

Pandemia sortu zenetik, enpresek, langileen osasuna lehenetsiz, hainbat neurri hartu dituzte merkatuaren errealitate berrira egokitzeko, krisiaren eraginari aurre egiteko eta enpresen biziraupenean sakontzeko.

Programa honek eragin positiboa izan du COVID – 19 egoeratik sortutako beharrianetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurrikuspena	Emaitza
Lagundutako enpresen kopurua	8	3
Enpleguak	100	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako laguntzak 2019-2020

2.- Araua

1) AGINDUA, 2019ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak (EHAako 152. zk., 2019ko abuztuaren 13a, asteartea).

2) AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez agindu hau aldatzen eta beste epe bat irekitzen baita: Agindua, 2019ko uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak. (EHAako 126. zk., 2020ko ekainaren 29a, astelehena).

3) AGINDUA, 2021eko ekainaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez agindu hau bigarren aldiz aldatzen baita: Agindua, 2019ko uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak (EHAako 125. zk., 2021ko ekainaren 25a, ostirala).

4) AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez hirugarrenez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikorako jarduketetarako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen agindua, eta epea irekitzen baita (EHAako 149. zk., 2022ko abuztuaren 3a, asteazkena).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

1) <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903867e.pdf>

2) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2020/06/2002537e.pdf>

3) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2021/06/2103646e.pdf>

4) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/08/2203512e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia energetikoa lortzeko jarduketetarako laguntzen programak arautzen dituen apirilaren 12ko 263/2019n Errege Dekretuan babestutako laguntzetarako deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko ETEetan eta enpresa handietan efizientzia



energetikoaren hobekuntzaren bitartez karbono dioxidoaren emisioak eta azken energia-kontsumoa murrizteko jarduketak piztu eta sustatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hasierako programaren amaiera-datan, 2022ko abenduaren 31ra arte, 385 eskabide aurkeztu ziren. Printzipioz, programaren 61 milioi euroetatik 24,4 milioi konprometuta daude.

Zenbateko horren arabera, 130,93milioi euroko inbertsio berriak mobilizatuko dira industria-sektoreko enpresa handi eta txiki eskatzaileetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuak	258	288
Mobilizatutako inbertsioak	130,93M€	139,76M€



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gauzatu Industria programa. Laguntza itzulgarriak oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. 2022ko Ekitaldia

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena; horren bidez 2022ko ekitaldirako laguntza itzulgarriak deitzen eta arautzen dira oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko. Gauzatu-Industria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

2022ko apirilaren 27ko Agindua (EHAA 2022/05/09 88 zk.)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2201956e.pdf>

2022ko abenduaren 15eko Ebazpena (EHAA 2022/12/30 249 zk.):

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/12/2205803e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 15ekoa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Gauzatu industria-programako 2022ko ekitaldiko laguntzen onuradunen zerrenda. Gauzatu industria-programaren bidez, teknologia-oinarriko ETEak edo ETE berritzaileak sortu eta garatzeko laguntzak ematen dira.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzaren modalitatea laguntza itzulgarriak ematean datza, 120.000 euroko inbertsio onartua duten eta, aldi berean, inbertsioak hasi eta gehienez 24 hilabeteko epean enpleguak mantentzea eta/edo sortzea dakarten proiektuei.

Lagun daitekeen inbertsioaren % 35erainokoak izan daitezke emango diren laguntza itzulgarriak

Laguntza hauek lortu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio-proiektuak egiten dituzten ETEek:

- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa txikientzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 35eko laguntza itzulgarriak.
- Oinarri teknologikokotzat jotzen diren enpresa ertainentzat: diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile txikientzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 30eko laguntza itzulgarriak.
- Enpresa berritzaile ertainentzat (berritzaileak baino ez): diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 25eko laguntza itzulgarriak



Helburua da: Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa, enplegua sortzen duten inbertsioak babestuz.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko DEIALDIAREN EMAITZAK

	GAUZATU 2022					
	Nº empresas		Inv. Presentada	Inv. Subvencionable	ANTICIPO	%sobre ayuda
PRESENTADAS	77		147.601.548,47			
DESISTIDAS	7	9%				
DENEGADAS	17	22%				
CONCEDIDAS	53	69%	104.572.288,23	93.189.581,10	27.893.428,94	
Pequeñas	28	53%	39.041.009,77	35.174.220,91	11.742.560,40	42,10%
Medianas	25	47%	65.531.278,46	58.015.360,19	16.150.868,54	57,90%
TECNOLOGICAS	31	58%	60.430.043,11	56.746.451,96	18.214.229,72	65,30%
Pequeñas	16	52%	24.911.889,97	23.805.882,22	8.332.058,79	45,74%
Medianas	15	48%	35.518.153,14	32.940.569,74	9.882.170,93	54,26%
INNOVADORAS	22	42%	44.142.245,12	36.443.129,14	9.679.199,22	34,70%
Pequeñas	12	55%	14.129.119,80	11.368.338,69	3.410.501,61	35,24%
Medianas	10	45%	30.013.125,32	25.074.790,45	6.268.697,61	64,76%

	GAUZATU 2022						
	Empleo a generar	Empleo comprmtdo	Plantilla Incial	Plantilla Mujeres	Plantilla Hombres	%mujeres s/pl inic	% hombres s/pl.inici
PRESENTADAS							
DESISTIDAS							
DENEGADAS							
CONCEDIDAS	877	149	2.416	463	1.953	19,16%	80,84%
Pequeñas	223,00	63	304	67	237	22,04%	77,96%
Medianas	654,00	86	2.112	396	1.716	18,75%	81,25%
TECNOLOGICAS	499	97	1.379	303	1.076	21,97%	78,03%
Pequeñas	175	44	104	34	70	32,69%	67,31%
Medianas	324	53	1.275	269	1.006	21,10%	78,90%
INNOVADORAS	378	52	1.037	160	877	15,43%	84,57%
Pequeñas	48	19	200	33	167	17%	84%
Medianas	330	33	837	127	710	15%	85%

53 empresa-proiektu lagundu dira (aurreikusitako 50en % 106), 105 milioi euroko inbertsio induzitua (aurreikusitako 100en % 105) eta 877 lanpostu sortuz (aurreikusitako 500en % 175). Plantillak mantentzeari dagokionez, % 21,97 emakumeen enpleguei dagokie; oinarri teknologikoko enpresen kasuan, eta % 15,43ra jaisten da enpresa berritzaileen kasuan.



ONURA ETA INPAKTU SOZIALA

Programak oinarri teknologikoko enpresak eta enpresa berritzaileak sustatzen ditu; hortaz, baita garapen teknologikoa eta berrikuntza ere. EAEn dagoen azpiegitura teknologikoa, Teknologiaren Euskal Sarearen bidez, funtsezkoa da era honetako enpresak sortzeko. Era berean, halako elkarrekikotasun-harremana sortuko da, ezen oinarri teknologikoko enpresak teknologia-eskatzaile aditu bihurtuko baitira; horrela, egokitu egingo dira eskaintza teknologikoaren zerbitzuak.

Bestalde, enplegua sortzea edo mantentzea bultzatzen du; hori dela eta, eragina du ekonomiaren parametro garrantzitsuetako batean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	50	53
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	100	105
Enpleguak	500	877



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

INDARTU Programa, 2022ko Agindua-Deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta deitzen baita 2022 ekitaldirako Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batezbestekoa baino % 10 handiagoa edo hortik gorakoa den langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako dirulaguntza-programa. Indartu 2022 Programa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua, 2022ko ekainaren 8koa (EHAA 2022/06/23 121 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202856e.pdf>

Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 21koa, (EHAA 2022/11/25 226 zk.): 2021ko Onuradunen zerrenda

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205150e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2022-2027 aldirako eskualde-laguntzen mapa berria behin onartuta Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 10tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk sustatzeko, ekoizpen-inbertsioak egiten dituzten eta eremu horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako diru-laguntzen programaren nondik norakoak garatu beharra dago. Honako hau da xedea: lurralde-erakunde diskriminazio positiboko ahalegin bat ezartzea - dela krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan duelako, dela garapena eragozten duen egiturazko hondatze-egoeran daudelako-, langabezia-egoera larritasun handienarekin nozitzen ari diren eskualde jakin batzuetara bideratuta.

Laguntzaren modalitatea laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10 (enpresa handia) edo % 15 (ETEak) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ematean datza. Jarduerak ezin izango dira hasi eskabidea aurkeztu baino lehen, eta data horretatik aurrera egin beharko dira, gehienez ere hurrengo bi urte naturaletan, ezaugarrien eta enpresa-planen arabera.

Diru-laguntzek gehieneko muga izango dute; izan ere, ezin izango dira 3.000.000,00 eurotik gorakoak izan enpresako.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 39

Eragindako/onartutako inbertsioa: 88.650.342,18 euro

Mantendutako lanpostuak:1.258. Onartutako lanpostuak: 128

Emandako diru-laguntza, itzulgarria ez dena 12.105.043,23 euro.

39 enpresa-proiekturi lagundu zaie (aurreikusitako 40 proiektuetatik %97,5); proiektu horien bidez, 88,65 milioi euro inbertitu dira (aurreikusitako 125 milioietatik %70,92), eta 128 lanpostu sortu (aurreikusitako 300 lanpostuetatik %42,67).

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programa honek eragina du parametro makroekonomikoetan, hobetu egiten baititu, batez ere enplegua zuzenean zein zeharka sortzea Ezkerralde Hedatuan eta urteko batez bestekoaren %10tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	40	39
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan).	125	88,65
Enpleguak	300	128



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BIDERATU BERRIA Programa. 2022 ko deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko urriaren 17koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Berria programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2017ko urriaren 17koa (EHAA 2017/10/2017 203 zk.):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/10/1705093e.shtml>

Ebazpena, 2022ko otsailaren 23koa, (EHAA 2022/03/03 45 zk.) Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez plazaratzen baita krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzen 2022ko ekitaldiko deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201042e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programaren bidez, neurriak gauzatzea sustatzen da, epe ertain eta luzera bideragarritasuna ezartzeko egindako berregituratze-planen barruan.

Laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Onartutako laguntzaren zenbatekoa planeko berregituratze-neurrien kostu osoaren % 50era artekoa izango da, baldin eta laguntzen onuradunak, bere baliabideak erabilita, hein berean laguntzen badu neurriak finantzatzen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko DEIALDIAREN EMAITZAK:

Proiektu kopurua: 0

Mantendutako lanpostuak: 0

Onartutako aurrerakin itzulgarriak:0,00 euro

AURREKONTU-PROGRAMAREN TAMAINAREKIN DUTEN LOTURA

Ez dago onatutako proiekturik.

ONURA ETA INPAKTU SOZIALA:

Programaren helburua da, krisiak jo arren, berriro lehiakorrak izateko aukera duten ETEen beharrianak asetzea eta, horrela, berriz bideragarriak izateko indarra eskaintzea.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua	5	0
Enpresek jarritako baliabide propioak (milioi eurotan).	5	0
Finkatutako lanpostuak.	350	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Klusterren antolakunde dinamizatzailen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 4koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deitzen eta arautzen baitira, 2022ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzailentzako babes-laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua:

2022ko maiatzaren 4ko Agindua (EHAA, 96. zk., 2022/05/19koa)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202134e.pdf>

2022ko abenduaren 15eko Ebazpena (EHAA, 249. zk., 2022/12/30)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/12/2205804e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 15ekoa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2022ko maiatzaren 4ko Aginduan ezarritako laguntzak 2022ko ekitaldian jasoko dituzten erakunde onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzailentzako babes-laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten da 2022ko ekitaldirako.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresen lehiakortasuna hobetzea da, trantsizio teknologiko-digitala, klimatikoa, ingurumenekoa eta demografiko-soziala landuz, baita enpresen eta sektoreen arteko lankidetzaren ere.

Onuradun bakoitzak 450.000,00 euroko laguntza jaso ahal izango du gehienez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko datuak	Estrategia	Berrikuntza	Nazioartekotzea	Teknologia	Guztira
Diru-laguntza	729.875	481.502	950.000	1.406.623	3.568.000

ERABILGARRITASUNA ETA GIZARTE-ERAGINA

Programa honek euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen du, garapen teknologikoaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen arloetako lankidetzaren eta lanaren bidez..



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Erreferentziako kluster-eremuen kopurua	16	16
Erakunde dinamizatzaile aktiboen kopurua	24	24
Elkartutako enpresen (ETEak) kopurua	1.917 (1631)	1.925 (1440))
Nazioartekotzeko lankidetzeta-jardueren kopurua	121	190
Berrikuntzarako eta teknologiarako lankidetzeta-taldeen eta jarduketan kopurua	238	235
KEBetako barne-taldeen dedikazioa (orduak)	137.000	156.400
Jarduketan finantzaketa pribatuaren balioa (KEBetako kideak)	5.600.000	5.687.036



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HAZITEK 2022 programa

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Enpresetan I+G bultzatzeko Hazitek programa, eta deitzen baita I. fasea, diruz laguntzeko modukoak diren proiektuen eskabideena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Enpresetan I+G bultzatzeko Hazitek programa, eta deitzen baita I. fasea, diruz laguntzeko modukoak diren proiektuen eskabideena.

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 18koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita Hazitek programaren esparruan diruz laguntzeko modukoak diren proiektu-eskabideen I. fasea, 2022ko deialdia.

EBAZPENA, 2022ko irailaren 21ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2022ko ekitaldian enpresetan I+G bultzatzeko programaren II. fasea egiteko deialdia.

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 28koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko urtarrilaren 26ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2022ko ekitaldiko entitate onuradunen zerrenda; agindu horren bidez, enpresetan I+G bultzatzeko Hazitek programa arautzen da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua ikerkuntza industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak burutzen laguntzeko laguntza-programak ematea da. Proiektu horiek izaera lehiakorra nahiz estrategikoa izan dezakete, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planean jasotako espezializazio-esparruetan gauzatzekoak dira.

- Lehiakortasun-proiektuak: Izaera lehiakorreko I+G proiektutzat joko dira ikerkuntza industrial eta garapen esperimentaleko proiektu-tipologia hauek:
 - 1) Produktu berriak garatzeko proiektuak.
 - 2) Zientzian eta teknologian oinarritutako enpresa berriak sortzeko proiektuak.
- Proiektu estrategikoak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planeko espezializazio-esparruetan jasotako izaera estrategikoko ikerkuntza industrial eta garapen



esperimentaleko proiektuak lagunduko dira diruz. Proiektu horiek, teknologia- eta berrikuntza-esparruetako ikerkuntza eta garapenean, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaz sustatu beharko dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

	<u>Babestutako proiektuak</u>	<u>Onartutako aurrekontua</u>	<u>Diru-laguntza</u>
Estrategikoak	32	127,8 Mill €	49,9 Mill €
Lehiakorrak	771	160,3 Mill €	45 Mill. €
Guztira	803	288,1 Mill €	94,9 Mill. €

Kontuan izanik 2022ko deialdiak 95 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %99,9koa izan da.

Lehiakortasunerako Hazitek programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko; halaber, egokia da egungo gizarte dinamiko, konplexu eta globalak unean-unean dituen behar berriekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.

Hazitek programaren ildo estrategikoa baliagarria da lankidetzaz publiko-pribatua garatzeko eta enpresa-partzuergoak sustatzeko, baldin eta ikerketa jarduketaz estrategikoko esparruetan egiten badute, Euskadiko ekonomia sustatzen badute, eta, aldi berean, I+G+b arloko lankidetzaz-kultura zabaltzen badute zientzia-, teknologia-, enpresa-sistemako eragile guztien artean.

Gizarte-inpaktua: hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasun handiagoak eraginda, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzearen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa eta patente berriak sortzearen ondorioz, horrekin guztiarekin enplegua sortu eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatu nahian.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako proiektu berezien kopurua	5	2
Lagundutako lankidetzazko proiektu estrategikoen kopurua	40	32
Lagundutako enpresen kopurua	200	186
Lagundutako lankidetzaz lehiakortasun-proiektuen kopurua	800	763
Enpresen I+Gko unitateekin edo sareko beste agente batzuekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kopurua	750	790
Produktuen garapenerako proiektu diruz lagunduen kopurua	620	267



Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Produktuen garapenerako proiektuetan diruz lagundutako enpresen kopurua	575	569
Oinarri teknologikodun enpresa berriak ateratzeko proiektu berri diruz lagunduen kopurua	20	11
OTEBetarako I+Gan lagundutako agenteen kopurua	10	3
OTEBak ateratzeko I+G proiektuetarako lagundutako enpresen kopurua	35	22



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ELKARTEK 2022 programa

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, arautzen duena arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa – Elkartek Programa– eta egiten duena I. faserako deialdia, diruz lagundu daitezkeen proiektuak eskatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, arautzen duena arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa –Elkartek Programa– eta egiten duena I. faserako deialdia, diruz lagundu daitezkeen proiektuak eskatzeko.

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 14koa, Industriako sailburuordearena, Elkartek programaren 2022ko deialdiaren barruan diruz lagundu daitezkeen proiektuak hautatzeko I. fasea ebazten duena.

EBAZPENA, 2022ko irailaren 21ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita, 2022ko ekitaldiari dagokionez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen II. faserako deialdia (Elkartek Programa).

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 13koa, Industriako sailburuordearena, Elkartek-2022 Programako laguntzak onartzeko II. fasea ebazten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honek ikerketa-proiektu kolaboratiboak babesten ditu, dela oinarrizkoak, dela industrialak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko (Elkartek programa).



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Babestutako proiektuak	Zk.	Aurrekontu onartua	Emandako dirulaguntza
Oinarrizko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak	39	40,62 Mill. €	40,62 Mill. €
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak	15	6,88 Mill. €	3,44 Mill. €
Interes bereziko ekintza osagarriak	7	0,7 Mill. €	0,35 Mill. €
GUZTIRA	61	48,2 Mill. €	44,41 Mill. €

Kontuan izanik 2022ko deialdiak 44,41 Milioi euroko aurrekontua izan zuela, egikaritze maila %100koa izan da.

Proiektuak bat datoz Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2030 Euskadi Planaren espezializazio-esparruekin.

Programa baliagarria da ezagutza lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes estrategikoa duten garapen teknologikoko esparruetan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planean jasotakoetan, alegia.

Gizartean izango duen inpaktua: Ezagutza estrategikoa sortzea garapenerako, enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresa-sektore berriak sortzea etorkizunean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	<u>Emaitza</u>
Arlo estrategikoetan, lankidetzan garatutako oinarrizko ikerketa proiektuen kopurua	40	39
Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuen kopurua	25	15
Interes bereziko ekintza osagarrien kopurua	8	7
Lagundutako eragileen kopurua	75	70



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emaitek Plus 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Emaitek Plus laguntzen programa arautzen duena.

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua aldatzen duena.

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Emaitek Plus Programa erregulatzen duen Agindua bigarren aldiz aldatzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka))

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/10/1504223e.pdf>

AGINDUA, 2017ko uztailaren 27koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704120e.pdf>

AGINDUA, 2019ko uztailaren 18koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903681e.pdf>

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 27koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Emaitek Plus laguntza-programarako 2022ko ekitaldiko deialdia.

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 5ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2015eko irailaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2022ko deialdiko erakunde onuradunen zerrenda. Agindu hori, lehenik, 2017ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez aldatu zen, eta, ondoren, Emaitek Plus laguntza-programa arautzen duen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko uztailaren 18ko Aginduaren bidez.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Foku Anitzeko Teknologia Zentroyen eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroyen jarduera ez-ekonomikoari laguntzera bideratutako laguntza publikoak. Hala, finantzaketa esleituko die, jardueraren emaitzen ebaluazioaren eta analisiaren bitartez, maila globalean, Emaitek Plus programaren bidez.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022eko ekitaldirako deialdia.

Aurrekontua, guztira: 70 milioi euro. Egikaritze maila %100ekoa izan da.

Hamaika teknologia-zentroren eta lau CIC ikerketa-zentro kooperatiboren jardura ez-ekonomikoa babestu da; era berean, 22 hobekuntza-ekintza lagundu dira teknologia-zentroyen aginte-koadroa betetzeko, eta 15 hobekuntza-ekintza egin dira CICetako aginte-koadroyen betetzea hobetzeko.

Teknologia zentroetan, egikaritze mailaren batz-bestekoa %91,66tik (2021an), %92,65ra igo da 2022ean; eta Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroetan, %85,99etik (2021an), %87,47ra (2022ean).

Programa baliagarria da zentro teknologikoei eta laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die haien jardueran maila orokorrean izandako emaitzak ebaluatu eta aztertuta, adierazledun aginte-koadroy baten bidez, ekitaldi bakoitzean lortu beharreko helburu batzuekin.

Gizartean izango duen inpaktua: Agenteen ezagutzak hobetzea eta ikerketen emaitzak enpresa alorrera transferitzea; haiek laguntzen baitute enpresen lehiakortasunaren sustapenean eta, baita, beraien garapen ekonomikoan, EAEk garapen jasagarria izan dezan.

6.- irulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako Zentroyen kopurua	15	15
Argitalpen zientifikoaren kopurua	1.300	1.330
Eskatu diren patenteen kopurua	120	117
Azken 5 urteotan NEBTSen fakturazioa	3.000 milaka. euro	390.000 milaka euro



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

AZPITEK 2022 programa

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 29koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen Azpitek 2022 programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko abenduaren 29koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntzen Azpitek 2022 programa.

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 16koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko abenduaren 29ko Aginduaren bidez onartutako oinarri arautzailetan aurreikusitako laguntzen 2022ko ekitaldiko entitate onuradunen zerrenda; agindu horren bidez arautzen da Azpitek 2022 azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko laguntza-programa.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da diruz laguntzea Foku Anitzeko Zentro Teknologikoen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBS) Ikerketa Kooperatiboko Zentroek (IKZ) egindako azpiegitura zientifiko-teknologikoen (A Z-T) eta ekipamendu zientifiko-teknikoen eskuratzea, horien instalakuntza eta eguneratzea I+G+B garatzeko eta emaitzak baliozteko eta frogatzeko. Hori guztia emaitzen kalitatea eta emaitzen eragin zientifiko-teknologikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzera bideratuta dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Babestutako proiektuak	Zk.	Aurrekontu onartua	Emandako diru-laguntza
Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eskuratzeko edota eguneratzeko proiektuak	27	14,8 Mill. €	13,8 Mill. €

Aintzat hartuta 2022eko deialdiko aurrekontua 13,8 M eurokoa zela, aurrekontua %100ean bete da.

Euskadik dituen erronkei zientziatik eta teknologiatik erantzuten jarraitzeko, beharrezkoa da azpiegitura zientifiko-teknologiko bikainak izatea, Euskadin eragina duten 3 trantsizioei heltzeko: trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-klamatikoa eta trantsizio soziala eta sanitarioa.



A Z-Tk dira I+G+Bko ekosistemen eta berrikuntzan oinarritzen diren balio-kateen bizkarrezurra. Hala, A Z-Tek teknologiaren garapen eta sorkuntza bateratua babesten dute, eta ziurtatzen dute teknologia hartzen dela kontzeptuaren probatik eta laborategietako baliozkotzetik hasita eta industria-inguruneko prototipoen erakusketara, dagokion inpaktu sozioekonomikoarekin Euskadin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	40	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BIKAINTEK 2022 programa

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+Gko proiektuak egiteko laguntzak – Bikaintek programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka))

AGINDUA, 2021eko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+Gko proiektuak egiteko laguntzak – Bikaintek programa.

Deialdia: EBAZPENA, 2022ko otsailaren 22koa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan doktorego-titulua dutenak kontratatuz eta doktorego industrialak eginez I+G proiektuak garatzeko laguntzen 2022ko deialdia. Bikaintek programa.

Onuradunen ebazpena: EBAZPENA, 2023ko otsailaren 1ekoa, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen 2022ko otsailaren 22ko Ebazpenak iragarritako laguntzen onuradunen zerrenda (Bikaintek 2022 programa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200644e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da enpresetan eta ZTBESko eragile jakinetan (ikerkuntza kooperatiboko zentroak, teknologia-zentroak eta enpresatko I+G unitateak) ikerkuntza eta garapena diruz laguntzea. Horrela, ikerlariak kontratatuta, goi-maila teknologikoko taldeak eratuz, beraien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko. Doktore-titulua duten pertsonen kontratazioa, I+G proiektuetan lan egiteko, edota industria-ikerketako proiektu bat egingo duten pertsonen Kontratazioa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdiaren aurrekontu osoa 5.670.000 eurokoa da: 1.402.500 € ordainketa-kreditua 2022ko ekitaldirako, 2.085.000 € 2023ko ekitaldirako, 1.432.500 € 2024ko ekitaldirako eta 750.000 € 2025eko ekitaldirako.



Aurkeztu ziren eskaerak 51 izan ziren: 32 doktoreak kontratatzeke lerroan eta 19 doktore-tesi industrialen lerroa. Guztira, 35 ikerlari kontratatu ziren, zeinetatik 14 emakumezkoak izan ziren (%40), eta 21 gizonezkoak (%60).

Aurrekontuaren egikaritzea %40,29koa izan da.

Eragina gizartean: doktoreak kontratatzeke lerroarekin, talentua eta lehiakortasuna igotzen dira enpresetan, industria-ehunean beraien hezkuntzan gaitasun bereziak garatu dituzten pertsonak laneraten. Bestalde, doktorego-ikasketak enpresetan edo ZTBESko eragile jakinetan egingo dituzten pertsonak kontratatzeke lerroan, talentua atxikitzea eta doktoregoko ikasleak EAeko I+Dko proiektuak enpresa-ingurumenetan garatzeko baldintzetan jartzea du helburu. Aldi berean, EAeko industria-ehunaren lehiakortasuna eta nazioartekotze-gaitasuna gehietzen laguntzen du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako doktorego-tesi kopurua	30	14
Kontratatu den doktore kopurua	45	21



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko programa

2.- Araua

- AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2022ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten duena, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuari jarraikiz.
- 202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia argitaratzeko esteka:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202473e.pdf>

Deialdiaren ebazpena argitaratzeko esteka:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/prots2022/web01-a2inguru/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua enpresei dirulaguntzak ematea da, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten.

Honako inbertsio-lerro hauek babesten dira:

- a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik haratago joatea edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzea ahalbidetzen duten inbertsioetarako laguntzak.
- b) Batasunaren etorkizuneko arauetara aldeztu aurretik egokitzeko laguntzak.
- c) Ingurumen-azterlanak egiteko laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko inbertsioetarako laguntzak, baldintza metagarri hauek betez gero:
 - Inbertsioa beste enpresa batzuek sortutako hondakinak murrizteko erabiltzen da.
 - Beste egoera batean, tratatutako material birziklatu edo berrerabiliak ezabatu egingo lirateke, edo ingurumena gutxiago zainduz tratatuko lirateke.
 - Laguntzek ez diete zeharka kenduko kutsaduraren erantzuleei Batasuneko legediaren arabera beraiek beren gain hartu beharrekoa den edo enpresa-kostu normalizat jo beharrekoa den ezein karga.
 - Inbertsioaren ondorio bakarra ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea material horien bilketa handitu gabe.
 - Inbertsioa teknikaren egungo egoeratik harago joango da.



- e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.
- f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumen-alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi horretarako 118 eskabide jaso ziren, eta atzera egin zutenak kenduta 114 geratu ziren; horietatik, 100 esleitu egin ziren.

Laguntza ekonomiko horien banaketa tematikoari dagokionez, prozedura arruntaren modalitatean honako hau izango da: osoko zenbatekoaren % 41,1 kutsadura atmosferikoari buruzko 15 proiektu laguntzeko erabiliko da, % 32,3 hondakinen sorrera minimizatu edo ezabatzeko 24 proiektu diruz laguntzeko izango da, % 11,6 uraren kutsaduraren aurka borrokatzera edo baliabide hori aprobetxatzera zuzendutako 8 proiektu laguntzeko erabiliko da, % 8,5 lurzorua saneatzeko/deskontaminatzeko 3 proiektu laguntzeko erabiliko da, % 0,3 azterketa bat egiteko, eta, azkenik, % 0,4 zaraten sorrera minimizatzeko/murritzeko proiektu bat gauzatzeko erabiliko da.

Horrez gain, 38 euskal enpresei ere dirulaguntzak eman zaizkie, prozedura sinplifikatuaren arabera, 45 proiektu egiteko, eta, bereziki, honako helburu hauetara zuzenduta: ETEei diruz laguntzea aipatutako tipologietako proiektuak gauzatzeko eta, bereziki, ingurumen-arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuen kostuei erantzuteko.

Era berean, nabarmendu behar da prozedura sinplifikatura bideratutako zenbateko osoaren % 80,33 hamazazpi inbertsio diruz laguntzeko izango dela Batasunaren arauetatik haratago joateko, % 9,17 hamabi ingurumen-azterlan finantzatzeko izango dela, % 7,73 hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko hamar proiektu laguntzeko erabiliko dela eta beste % 1,94 enpresa txiki eta ertainei laguntzeko bost inbertsio-proiektu diruz laguntzeko bideratuko dela, eta, azkenik, % 0,83 izango dela Batasunaren etorkizuneko arauetara aldeztu aurretik egokitzeko proiektu bat diruz laguntzeko erabiliko dela.

2022ko dirulaguntzen deialdiaren emaitzei dagokienez, diruz lagundutako proiektuek izan dezaketen eragin potentzialari buruzko datuak baino ez ditugu; izan ere, jarduketa horiek 2024ko azaroaren 24ra irits daitezke.

2022ko maiatzaren 25eko Aginduaren arabera, 2022ko deialdira zuzendutako aurrekontu-zuzkidura 5.000.000 euro izan ziren.

Emandako 100 dirulaguntzei dagokien inbertsio garbiaren osoko zenbatekoa 33.677.493,14 € dira; zenbateko hori 39.216.031,01 €-ko inbertsio gordin bati dagokio.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Teknologia eta ingurumen-prozesu berritzaileen sustapena	Aurreikuspena	Emaitza
Enpresei diruz lagundutako proiektuen kopurua.	100	100
Dirulaguntza jaso duten enpresen kopurua.	150	73
Enpresei emandako laguntzetatik ondorioztatutako inbertsioen zenbatekoa (milioika eurotan).	25	33,68
Dirulaguntzaren ehunekoa, azkeneko inbertsioetik.	7%	14,85



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-laguntzak, Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 2030 eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita 2022-2023ko ikasturterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua: 2022ko martxoaren 9ko Agindua (EHAA 56 ZK. 2022 martxoaren 18koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201285e.pdf>

Ebazpena: 2022ko uztailaren 18ko EBAZPENA (EHAA 152 ZK. 2022 abuztuaren 9koa)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/08/2203561e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei dirulaguntzak ematea, norgehiagoka-prozeduraren bidez, 2022-2023 ikasturtean Eskolako Agenda 2030 (EA2030) eta Lanbide Heziketako Agenda 2030 (LHA2030) programak garatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Guztira 480 dirulaguntza eman dira, hau da, % 6,41eko igoera 2021eko deialdiarekin alderatuta. 2021-2022 ikasturterako deialdian 238.226 ikaslek parte hartu dute, hau da, 2021eko deialdian baino % 2,76 gehiagok.

EAEko 109 ikastetxek lortu dute "Eskola Jasangarrien" ziurtagiria, 2021ean baino bi ikastetxe gutxiago. Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, guztira 1.250.000 € erabili dira laguntza honetarako, bi ordainketatan banatuta: lehenengo ordainketa, diru-laguntza eman zen unean egin zen, 1.000.000 €-koa guztira (guztizkoaren % 80); eta bigarren ordainketa jasotako dirulaguntza justifikatu ondoren egingo da, 250.000 €-koa guztira (gainerako % 20a).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskolako Agenda 2030 programa garatu duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen kopurua.	450	480
Eskolako Agenda 2030 programan dauden unibertsitatez kanpoko ikasleen ehunekoa.	%70	%70,86
Eskola Agenda 2030 programan dauden Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa.	%10	%59,60
"Eskola jasangarri" gisa aitortutako ikastetxeen kopurua.	85	109
Haur eta Gazteen Konferentzian (CONFINT) parte hartu duten ikastetxe iraunkorren kopurua.	20	23



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Urdaibaiko Biosfera Erreserban errentagarritasun finantzarioa galtzeagatiko konpentsazio ekonomikoa eta ingurumen-kudeaketa egokia lortzera bideratutako dirulaguntzak

2.- Araua

83/2019 DEKRETUA, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibai Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua; 83/2019 Dekretua, 2019ko ekainaren 4koa (EHAA, 108. zk., 2019ko ekainaren 10koa, astelehena).

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/06/1902779e.pdf>

Deialdia: AGINDUA, 2022ko azaroaren 16koa (EHAA, 230. zk., 2022ko abenduaren 01koa, osteguna)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/12/2205248e.pdf>

Emateko ebazpena, oraindik argitaratu gabe.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1. lerroa: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuak baso-erabileretarako ezarritako mugek eragindako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko laguntzak.

2. lerroa: zaintza-akordio batean formalizatutako natura-ondarearen kontserbazio aktiboko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lortutako emaitzak:

- 1. lerroa. Konpentsazio-partzelen azalera: 10,59 ha.
- 2. lerroa. Zaintzapeko lursailen azalera: 22,65 ha.

Aurrekontua gauzatzea: deialdiaren aurrekontua 250.000,00 eurokoa izan da: 150.000,00 € lehenengo lerrorako eta 100.000,00 € bigarrenerako.

Aurrekontuaren gauzatze-maila % 98,61ekoa da

Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina:

Laguntza eta dirulaguntzekin lortu dira irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.21 artikuluan – 5. apartatua – adierazitako helburuak: baso-masen iraunkortasuna, baso-erabileren errendimendu iraunkorra



eta basoen erabilera anitza. Ildo horretan, emango diren laguntzak eta dirulaguntzak baso-baliabideen aprobetxamendu iraunkorrera, naturaren kontserbaziora, arro hidrografikoen eta lurzoruaen babesera eta basoen funtzio publikoa indartzera bideratuta daude. Eta, bestetik, baso-ustiatgien titularrak administrazio publikoekin lankidetzan aritzera bultzatu dira, baso-ustiatgiak kontserbatzeko, lehengoratzeko eta ingurumena eta paisaia integratzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hazkunde azkarreko espezieekin landatutako baso-hektareak, espezie autoktonoekin ordezkaturak. (2. lerroa)	70,00 has	22,65 has
Hazkunde azkarreko espezieekin landatutako baso-hektareak, espezie autoktonoekin ordezkaturak. (1. lerroa)	19,14 has	9,49 has
Hazkunde azkarreko espezieekin landatutako baso-hektareak, hazkunde ertain-moteleko espezieekin ordezkaturak. (1. lerroa)	1,98 has	1,10 has



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntzak garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten Toki Erakunde Publikoentzat

2.- Araua

Agindua, 2022ko ekainaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

(a) Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/06/2202962e.pdf>

(b) Ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/02/2300577e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten EAEko toki-erakundeek jaso ahal izango dituzten dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea eta dirulaguntza horietarako deialdia egitea, honako lerro hauekin bat etorritz:

- (a) Lurzoru kutsatuak. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko, prebenitzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak, lurzoru artifizializatu hutsen inbentarioak barne.
- (b) Klima-aldaketa. Arintzera (berotegi-efektuko gasen isuri garbien murrizketa), CO₂ xurgapenera eta egokitzapenera (plangintza eta ekintzak) bideratutako ekintzak klima-aldaketak EAEn dituen efektuak murrizteko.
- (c) Natura-ondarea. EAEko dibertsitate biologiko eta geologikoa kontserbatzen, leheneratzen edo hobetzen lagunduko duten ekintzak.
- (d) Ekonomia zirkularra. Tokiko zirkulartasuna sustatzen duten ekintzak.
- (e) Tokiko ekoberrikuntza. Berrikuntza eta erakustaldi proiektu pilotuak garatzea, transferigarriak izan daitezkeen eta ingurumen-inpaktuak murrizten dituzten lehentasunezko eremuetan.
- (f) Jasangarritasunaren aldeko hezkuntza Tokiko Agenda 21 edo Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.
- (g) Asteklima 2022. Klima aldaketaren arloan herritarrak ekintzara mobilizatzeko ekintzak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdirako aurrekontu-zuzkidura 4.680.000,00 eurokoa izan zen guztira.

2022ean, 253 eskaera jaso dira guztira. Eskaeren lerrokako banakapena hau da: Lurzoru kutsatuak: 21; klima-aldaketa: 33; natura-ondarea: 37; ekonomia zirkularra: 45; tokiko ekoberrikuntza: 15; jasangarritasunaren aldeko hezkuntza: 46; eta Asteklima: 56.

Aurkeztutako eskaeretatik, EAeko toki-erakundeen 206 proiektu diruz lagundu dira:

- Lurzoru kutsatuen lerroko 17 proiektuk 1.378.607,73 € jaso dituzte.
- Klima-aldaketaren 18 proiektuk 1.004.437,86 € jaso dituzte.
- Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarearen 19 proiekturi emandako dirulaguntza 782.378,05 €-koa izan da.
- Ekonomia zirkularreko 40 proiektuk 744.225,71 € jaso dituzte.
- Tokiko ekoberrikuntzaren 15 proiektuk 341.023,82 € jaso dituzte.
- Jasangarritasunaren aldeko hezkuntzarako 46 proiektuk 334.342,24 € jaso dituzte.
- Asteklimako 55 proiektuk 99.294,40 € jaso dituzte.

Ingurumen-emaitzak

Jarduketa horiek gauzatzeko epea 2024ko urriaren 31n amaitzen denez, diruz lagundutako proiektuei dagokienez aurreikusten den ingurumen-inpaktu potentzialari buruzko datuak bakarrik daude:

Klima-aldaketaren lerroan dirulaguntza esleitu zaien 18 proiektuek 79,68 tona CO₂ murriztea lortuko dute, eta 8.801 tona CO₂ atzematea, 59 lur-hektarea baino gehiago landatzeari eta basoberritzeari esker. Jarduketa-lerro honen proiektuek, halaber, 1,6 km-ko bidegorria eta 83 aparkaleku egitea aurreikusten dute, udalerrien barruko trafikoa saihesteko, eta ibilgailu elektriko berri bat erostea udal-flotentzat. Era berean, 5 udalerrik klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketari egokitzeko plan integratuak egingo dituzte; halaber, neurriak abian jarriko dituzte, lurraldearen erresilientzia handituz klimaren inpaktu negatiboari aurre egiteko.

Natura-ondarearen lerroko proiektuei dagokienez, diruz lagundutako 19 proiektuetatik proiektu garrantzitsuenen tipologiak aurten ere intereseko habitatak berreskuratzea eta/edo berroneratzea bideratu dira. Guztira, diruz lagundu beharreko proiektuek batasunaren nahiz eskualdearen intereseko habitaten 85 hektarea baino gehiago kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea sustatzen dute, baita ingurumena berreskuratzeko jarduketak egingo diren 61 hektareako lurak erostea ere, eta Natura 2000 Sareko 463 hektareatan jardutea.

Lurzoru kutsatuei dagokienez, diruz lagundutako jarduketa onetsiak bideratuta daude 114.000 m²-tik gorako guztizko azalera aztertzeraz; 17.600 m²-ko azalera globala osatzen duten areak berreskuratzeraz; eta lurren 68.160 m²-ri ingurumen-jarraipena eta -kontrola egitera.



Bestalde, ekonomia zirkularra sustatzeko 40 proiektu diruz lagundu dira. Ekonomia zirkularren proiektuen bidez, gaikako bilketa handitu eta errefus-hondakinen sorrera murriztu nahi da: aurreikusten da urtean 90.000 tona errefus-hondakin murriztea. Dirulaguntza jaso duten beste jarduketa batzuek helburu hauek dituzte: 4 truke kutxa instalatzea; ekonomia zirkularreko prestakuntza-ekintzak 5 tailerrekin; fibrozementuzko 71 tona biltzea; amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen 4 errolda egitea; bi udal-eraikin eraistea; eta, udal ordenantza bat garatzea.

Azkenik, jasangarritasunaren aldeko hezkuntzaren lerroak 72 udal eta 366 ikastetxe baino gehiago inplikatu ditu, 182.876 ikasle baino gehiago bilduz hainbat esparrutan: Garapen Jasangarrirako Helburuak, Lurreko Ekosistemak, Hiri eta Komunitate Jasangarriak, Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak eta Jasangarritasunaren aldeko hezkuntza.

Nolanahi ere, ingurumena zaintzeak eta natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzeak eragin positiboa dute, zuzenean eta zeharka, giza osasunean. Giza osasunean edozein arrisku saihestek zuzenean eragiten die diru-kutxa publikoei, osasunean aurrezten den neurrian.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1: toki-erakunde onuradunen kopurua	75	122
2: urtean murriztutako CO ₂ tonak (tCO ₂ /urte urtean)	1.000	79,68+8.80 1
3: atmosferan saihestutako partikulen kilogramoak (kg PM10/urte)	500	37.342
4: urtean saihestutako oxido nitroso kilogramoak (kg NO _x /urte)	1.500	25.619
5: hobetutako eta/edo leheneratutako intereseko habitatak (ha)	25	131
6: ekonomia zirkularreko proiektu kopurua	10	40
7: udalekin beren Eskolako Agenda 21 koordinatu duten ikastetxeen kop.	342	366
8: Asteklima onuradunen udal kopurua	55	58
9: Asteklimako ekintzak	120	153
10: Astekliman mobilizatutako pertsona kopurua	4.000	n.d.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak

2.- Araua

Agindua, 2022ko martxoaren 30ekoa, (EHAA, 70. zk., apirilaren 7koa) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez natura-ondarea babesteari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten pertsona, elkarte, fundazio eta enpresentzako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri eta laguntza horiek emateko deialdia egiten baita 2022. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201566e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204764e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Indarrean dagoen Ingurumen Esparru Programaren 1. helburu estrategikoak ("gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz") ekosistemen eta haien zerbitzuen galera mugatzea jasotzen du bere jarduketa-ildoen artean, eta, horretarako, bere jardueren artean sartzen ditu natura-ondarea hobeto kudeatu eta kontserbatu ahal izateko ezagutza hobe izatearekin lotutako jarduerak.

Ildo beretik, 2030erako Biodibertsitate Estrategiak "naturaren ezagutza eta kultura sustatzea" ezarri du bere lau helburuen artean. Helburu horretan kokatzen da naturalismo zientifikoaren esparru honetan lan egiten duten erakunde eta elkarteei zuzendutako laguntza-programa hau, gizarteko eragile guztien erantzunkidetasuna ere sustatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programaren aurrekontua 180.000€koa izan da.

Guztira, 16 eskabide aurkeztu dira, guztiak epearen barruan. 9 ikerketa-proiektu diruz lagundu dira:

- Araban 2 proiektu lagundu dira diruz (% 22,2), Bizkaian 5 proiektu (% 55,6) eta Gipuzkoan 2 proiektu (% 22,2). Aurrekontuan, dirulaguntzak % 23 dira Araban,% 59 Bizkaian eta % 18 Gipuzkoan.
- Gaien arabera, proiektu gehienak flora eta fauna basatiaren kontserbazioarekin lotutako hainbat alderditan oinarritzen dira, eta ohikoagoak dira faunarekin lotutakoak.

Ikerketa-proiektuak gauzatzeko epea 18 hilabetekoa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
diruz lagundutako proiektuen kopurua	12	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadin hondakinen araudia ezartzen eta ekonomia zirkularra sustatzen laguntzeko dirulaguntzak

2.- Araua

Programaren araua eta deialdia:

AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten baita.

Aginduaren aldaketa:

AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105375e.pdf>

Aginduaren aldaketa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204272e.pdf>

Ebazpena (EHAARI ez):

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/1207501/web01-tramite/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzen helburua da hondakinen kudeaketa hobetzeko behar diren inbertsioak bizkortzea eta Europar Batasunak udal-hondakinen eta ontzien eta ontzi-hondakinen kudeaketaren arloan ezarritako helburu berriak betetzen direla bermatzea, funtsean.

Zehatz-mehatz, udal-hondakinak berrerabili eta birziklatzeari dagokionez, prestatze-helburu berriak hiru denbora-tarte berritarako ezarri dira: % 55eko helburua 2025ean, % 60koa 2030ean, eta % 65ekoa 2035ean; 2020an indarrean dagoen % 50eko helburuak ezarritako bideari jarraipena emanez. Hondakin horiek, gainera, gehieneko muga bat izango dute; 2035ean, sortutako udal-hondakin guztien % 10 bota ahalko dira gehienez. Helburu horiei gehitu behar zaizkie ontzien birziklapenean eta ontzien hondakinetan 2025erako eta 2030erako ezarritako helburuak, globalak eta gaikakoak.

Laguntza horiek (bereziki, biohondakinei buruzko neurriek, baina baita beste material batzuen birziklatzearekin lotutakoek ere) hondakinen hierarkiaren lehenengo aukerak sustatzen dituzten heinean, hondakin gutxiago doaz zaborteigira, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten dira eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen da. Halaber, zenbait produkturen bizitza baliagarria luzatzen eta



industria-prozesuetarako bigarren mailako lehengaien eskuragarritasuna handitzen laguntzen da, lehengai birjinen kontsumoa murriztu egiten delako, eta, azken batean, eskuragarri dauden baliabideak modu efizienteagoan erabiltzen

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi honetan, 108 proiekturi dagozkien 90 eskabide jaso dira guztira, eta horietatik 79 finantzatu dira, honela banakatuta:

- 1º lerroa. Bilketa bereizi berriak ezartzea, bereziki biohondakinak, eta daudenak hobetzea:49
2. lerroa. Bereizita jasotako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea:6
3. lerroa. Bereizita bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko instalazio berriak eraikitzea:9
4. lerroa. Bilketa-instalazioei (garbiguneak, adibidez), triajeari eta sailkapenari (ontziak, papera, etab.), tratamendu-planten hobekuntzari, dauden instalazio mekaniko-biologikoei eta CSR prestatzeko instalazioei dagozkien inbertsioak:15

Aurrekontu-zuzkidura, 18.003.656,52 €-koa izan da.

Ez dago diruz lagundutako proiektuen irismenaren behin betiko emaitzarik, proiektuek gauzatzeko epea 2026an amaitzen baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Finantzatutako proiektu kopurua	--	79



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egindako ingurumen-boluntariotzako proiektuetarako diru-laguntzak EAEn

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sail-buruarena, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek EAEn ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena. 2022ko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua: 2022ko urriaren 5eko Agindua (EHAA 199 ZK. 2022 urriaren 18koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204469e.pdf>

Ebazpena: 2022ko abenduaren 15eko Ebazpena (EHAA 2 ZK. 2023ko urtarrilaren 3koa)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/01/2300034e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da norgehiagoka-prozeduraren bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea. Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hona hemen 2022ko deialdian eskatutako dirulaguntzen eta diruz lagundutako proiektuen laburpena:

- Dirulaguntzaren zenbatekoa: 200.000 €
- Guztira 32 proiektu aurkeztu dira 2022ko ekitaldiko deialdian. Aurkeztutako 32 eskabide horietatik 30ek jaso dute dirulaguntza (10 Bizkaikoak, 12 Gipuzkoakoak, 7 Arabakoak eta 1 Estatu mailakoa).
- Proiektuetan parte hartu duten pertsonen kopurua: 4.924
 - Gizonak: 2.447
 - Emakumeak: 2.477
- Proiektuen gai nagusiak:
 - Ingurumena eta paisaia hobetzea (%10)
 - Kontsumo iraunkorra (% 10)
 - Klima-aldaketa (% 7)
 - Biodibertsitatea (% 13)
 - Ingurumen-kontzientziazioa eta sentsibilizazioa (% 17)
 - Hondakinak (%20)
 - Hiri-jasangarritasuna (%23)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Garatutako ingurumen-boluntariotzako proiektuen kopurua (diruz lagunduak).	18	30
Diruz lagundutako ingurumen-boluntariotzako proiektuetan parte hartu dutenen kopurua.	1.500	4.924



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

GASTROBIKAIN 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko irailaren 14koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2022ko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezartzen baitira Gastrobikain kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren de minimis araubidean jasotako laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204200e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gastronomiaren eta elikaduraren sektorean estrategikotzat jotzen diren ekimen gastronomikoak diruz laguntzea: alde batetik, tituludun berrien negozio gastronomiko berriak; eta, bestetik, ospe handiko negozioen bikaintasuna sendotzea.

Bi laguntza-lerro ezarri dira:

- a) Proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programa. Helburua da negozio gastronomiko berriak sustatzea, baldin eta gastronomiako unibertsitate-graduetako edo sukaldaritza eta gastronomiako goi mailako zikloetako tituludun berriek abian jarritakoak badira eta kalitatea bereizgarri badute.
- b) Bikaintasuna areagotzeko programa. Ibilbide eta kalitate aintzatetsia duten establezimendu gastronomikoak babestea da helburua, sektoreko kalitate-estandarretan eta -ziurtagirietan hobetzeko helburuarekin, gastronomiako gidetan eta nazioartean ezagunak diren bikaintasun gastronomikoko rankinetan bereziki.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdiaren aurrekontua 500.000 eurokoa izan zen. 10 proiektu onartu dira, guztira 459.231,66 €-ko laguntza eta 1.458.737,00 €-ko eragindako inbertsioa. Irailaren 28an argitaratu zen, eta, horren ondorioz, ezinezkoa izan zen urtearen barruan izapidetzea, eta 2023an ebatzi zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua.	8	10
Eragindako gastu / inbertsio bolumena (M. euro).	2	1,5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BERRIKER - Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko azaroaren 3koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2022rako, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertu, garatu eta berritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak (Berriker).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204946e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea eta helburua.

1. – Agindu honen xedea da nekazaritzaren, basogintzaren eta produktuen sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatu eta sustatzeko laguntzen araubidea deitzea. Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza eta akuikulturakoak (Berriker).
2. – Agindu honetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzak honako hauek dira: eraginkortasuna handitzeko eta lehiakortasuna hobetzeko, eta hazkunde iraunkorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, basogintza eta arrantzako eta akuikulturako produktuen sektoreetan lankidetzaren sustatzea.
3. – Agindu honetan aurreikusitako laguntzek berariazko tratamendua izango dute 651/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera jakinarazteko betebeharretik salbuesita dauden laguntzak. Ekainaren 17ko Batzordea, zenbait laguntza-kategoria merkatu bateratuarekin bateragarritzat jotzen dituen, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (kategorien araberrako salbuespen orokorra) (DOUE L187, 2014-06-26koa); beraz, Europako Batzordeari behar bezala jakinarazita, ondorioak izan eta 20 eguneko epean. Europako Batzordearen ekainaren 25eko 702/2014 (EB) Erregelamenduaren bidez nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta eremuetako laguntza-kategoria jakin batzuk Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz barne-merkatuarekin bateragarriak diren Europar Batasunaren funtzionamendua (EBAO L193, 2014-06-01ekoa).



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

50 eskabide aurkeztu dira; horietatik 36 diruz laguntzeko modukoak dira, eta gainerako 14ak ez.

Deialdi-aginduan hasieran aurreikusitako funts erabilgarriak 3.500.000 eurokoak izan ziren, horietatik 2.700.000 2022rako ordainketa-kredituari zegozkion, eta 800.000 2023rako konpromiso-kredituari. Azkenik, 2023an 2.100.000 euro sartu dira.

Programa hori 2022aren amaieran aztertu da, eta 2023an emango den ebazpen-proposamena 1.842.155,83 eurokoa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Eskaera Kopurua	68	50
Onartutako proiektuen kopurua	32	36



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzak 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2022rako, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203627e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea eta helburua.

1. – Agindu honen xedea da laneratzeari laguntzeko laguntzetarako deialdia egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai-katearen eta zuraren industriaren digitalizazioa sustatzea, lehiakortasuna hobetzeko.
2. – Agindu honetan araututako laguntza hauek hiru helburu dituzte: enpresak digitalizatzen hasi zirenean, sistemak txertatuz, digitalizazio aurreratuko fasean dauden enpresei laguntzea, 4.0 teknologia txertatuz; eta, azkenik, proiektu elikatze-katean eragina duten digitalizazio-estrategia estrategikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurkeztutako 112 eskaeretatik 86 jarduera-proiektu onartu dira elikadura-katea eta zura digitalizatzeko, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitakoak.

Deialdi-aginduan hasieran aurreikusitako funts erabilgarriak 2.000.000 eurokoak dira; horietatik 500.000 2022rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.500.000 2023rako konpromiso-kredituari.

Programa hori 2022aren amaieran aztertu da, eta 2023an emango den ebazpen-proposamena 1.047.458,37 eurokoa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Eskaera kopurua	97	112
Onartutako proiektuen kopurua	76	86



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ikertalent programa 2022 - Nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren alorretan langile ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko azaroaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2022ko laguntzetarako deialdia egiten duena (Ikertalent Programa)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205204e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2022ko ekitaldirako, doktoratu aurreko ikertzaileen programako hamabi laguntzatarako eta teknologoak prestatzeko programako hamar laguntzatarako deialdia egin da (Ikertalent 2022 programa).

Aginduaren eranskinean, aintzat hartutako I+G+b proiektuen zerrenda jasotzen da estrategikoa eta lehentasunezkoa da Ekonomiaren Garapen eta Iraunkortasun Sailaren aldetik bi laguntza-programetarako eta atxikipen-zentroen zerrendarako proiektu bakoitzerako onartutako titulazioak edo ikasketa-eremuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Ikertalent Programaren 2022ko deialdia 2023an ebatziko da, eta, beraz, ezin dira oraindik baloratu lortutako emaitzak.

Programa honek erabilgarritasun eta eragin sozial handia duela uste da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Beka berrien kopurua	22	
5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Guztira 45 ontzik egin dute geldialdia, eta 91 tripulatzailek (90 gizonak eta emakume batek) Egindako gastua, guztira, 323.178,18 €-koa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1.helburua: Arrantza-flota egokitzea		
1. ekintza: arrantza-flotaren egitura.		
1. adierazlea Arrantza-ontzien gaitasuna kudeatzea, doitzea eta erregulatzea: Arrantza-unitateak aldi baterako geldiaraztea (arrantza-unitateak)	39	45
2. adierazlea Tripulanteen kopurua	76	91
Gizonezkoak	76	90
Emakumezkoak	0	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Tokiko garapen parte-hartzailea

2.- Araua

AGINDUA, 2022eko maiatzaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2022ko ekitaldirako partaidetzazko toki-garapenaren strategiaren (PTGE) babeseko proiektuetarako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituena. Estrategia hori Arrantza Sektoreko Toki Ekintzako Taldeak (ATET) onetsi du, arrantza-eremuen garapen jasangarrirako, Europako 2014-2020 aldirako Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsaren (IAEF) esparruan.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2022/ayudas-al-amparo-de-la-estrategia-de-desarrollo-local-participativo-2022/web01-a2arraku/es/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da Itsas Garapen Elkarte Tokiko Ekintza Taldeari (aurrerantzean, ATET) Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak onartutako partaidetzazko toki-garapenaren strategiaren (PTGE) babespean gauzatutako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egitea.

Gainera, diruz lagundu daitezkeen proiektu eta jarduketek jarraian zehazten diren helburu hauetakoren bat lortzen lagundu beharko dute:

- a) Arrantzako produktuen balioa handitzea, enplegua sortzea, gazteak erakartzea eta berrikuntza sustatzea arrantzaren eta akuikulturaren produktuen hornidura-katearen fase guztietan.
- b) Hauetan laguntzea: arrantza-sektorearen dibertsifikazioa merkataritza-arrantzako sektorean edo hortik kanpo, ikaskuntza iraunkorra eta arrantza- eta akuikultura-guneetan enplegua sortzea.
- c) Tokiko ekonomiaren dibertsifikazioan laguntzea, lehentasunez arrantza eta itsasoa baliabideei atxikitako jarduera ekonomiko berrietarantz.
- d) Arrantza-guneetako arrantza, akuikultura eta itsasoaren kultura-ondarea sustatzea.
- e) Arrantza-komunitateen papera tokiko garapenean eta arrantza-baliabideen tokiko itsas-jardueren gobernamentua indartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Guztira 72 laguntza onartu dira, eta laguntza-lerroen arabera banakatuta:

- Inbertsio produktiboak: 37; horietatik 7 emakumeek sustatu dituzte.
- Enplegua sortzea: 28 (7 gizon eta 21 emakume)



- Inbertsio ez-produktiboak: 7 proiektu; horietako bat, Itsasoko Emakumeen Federazioarena, estatu mailako Emakumeen Sarearen Kongresuan parte hartzeko, eta bestea, emakume batek sustatua. Bertan, emakumeek arrantza-sektorean egiten duten lana nabarmentzen da liburu baten bidez.

Egindako gastuari dagokionez, onartutako laguntzen guztizko zenbatekoa 1.499.987,68 €izan da, eta laguntza-lerroen arabera banakatuta dago:

- Inbertsio produktiboak: 1.102.112,68 €
- Enplegua sortzea: 200.000,00 €
- Inbertsio ez-produktiboak: 197.875,00 €

Programa hau arrantza-sektorearen bideragarritasuna bermatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-udalerrietan hazkundera eta enplegua sortzeko sortu da, arrantza-produktuen balioa handituz eta tokiko ekonomia jardura ekonomiko berrietara dibertsifikatuz, besteak beste, «Hazkunde urdina» eta itsas sektoreak zentzu zabalean eskainiz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
1. Ekintza Sektoreari laguntzea eta haren jardura ekonomikoa dibertsifikatzea		
1. adierazlea Sektorearen irudia hobetzea (ekintza kopurua).	1	4
2. adierazlea Arrantza-produktuak sustatzea, bultzatzea eta merkaturatzea (jarduketa kopurua).	4	8
3. adierazlea Gaitasun profesionala eta aukera-berdintasuna sustatzea arrantzaren sektorean.	1	1
4. adierazlea Emakumea arrantzaren sektorean sartzeko baldintzak hobetzea (jarduketa kopurua).	1	1
5. adierazlea Aukera-berdintasuna sustatzea arrantzaren sektorean (jarduketa kopurua).	1	0
6. adierazlea. Arrantza-sektorea dibertsifikatzea, sektoreko know-how-arekin zerikusia duten jardura berritzaileen bidez (jarduketa kopurua)	1	2
2. ekintza: Arrantza-herrien jardura ekonomikoa dibertsifikatzea		
1. adierazlea Dibertsifikazioa, itsasoko eta arrantzako baliabideekin zerikusia duten jardura berriak ezarrita (proiektu kopurua).	4	5
2. adierazlea Itsasoko eta arrantzako ondarearen baliabideak berreskuratzea, kontserbatzea, nabarmentzea eta horiek aprobetxatzea (proiektu kopurua).	1	0



3. adierazlea Itsasoari lotutako ekimen turistikoak sortzea eta horiek modu jasangarrian garatzea (proiektu kopurua).	2	7
---	---	---



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ITSASORATU programa

2.- Araua

Agindua, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ertaineko sailburuarena. Oinarri arautzaileak ezartzen dituena eta 2022rako deialdia egiten duena. Minimis erregimenari atxikitako laguntzak arrantza-enpresentzat, prestakuntza-egonaldiak ahalbidetzeko ikasleak arrantza-ontzietan, Itsasoratu programa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2022/itsasoratu-2022/web01-a2arraku/es/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza-enpresentzako laguntza-programa bat da, arrantza-ontzietan nabigazio-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleen prestakuntza-egonaldiak ahalbidetzeko.

Arrantza-sektorearen errealitatean prestakuntza-praktika sustatzea da helburua, ontzi-arrantzako enpresei nabigazio-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleak ontziratzen lagunduz, ontziratze-aldi bakoitzean sortutako gastuengatiko laguntza ekonomikoaren bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Edizio honetan 14 gaztek (13 gizon eta emakume bat) eta 10 ontzik hartu dute parte, bai lantokiko prestakuntzan praktikak egiteko modalitatean (LP), bai tunidoen kanpainan udako praktikak egiteko modalitatean.

Programa honek lortu du itsas titulodunei itsasoratzea erraztea, eta, bide batez, sektoreko belaunaldien arteko erreleboa, batik bat, Euskadiko alturako nahiz baxurako flotako agintedunen artean egin nahi den erreleboa erraztea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Ikasleen kopurua	16	12
Gizonezkoak	15	12
Emakumezkoak	1	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Nautika eta arrantza arloko prestakuntzaren beka

2.- Araua

Agindua, 2022ko apirilaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez beketarako deia egiten baita, 2021-2022 ikasturterako, Pasaiako Blas de Lezo Itsas Arrantzako Heziketa Zentroan, Bermeoko Nautika eta Arrantza Lanbide Heziketako Eskolan eta Ondarroako Antiguako Nautika eta Arrantza Lanbide Heziketako ikastetxean nautika eta arrantzako ikasketak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2022/becas-para-enseanzas-nautico-pesqueras/web01-a2arraku/es/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Horregatik, arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuna emateko, beharrezkoa da itsas langileei eta, oro har, merkatuaren betekizunetara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiei beka emateko deialdia egitea, Europatik eskatzen denari egokitutako prestakuntza jaso dezaten aipatutako arrantza-sektorearen mesedetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Prestakuntza ekintzak horiek bultzatu dira beka programa baten bidez, hau da, 2020-2021 ikasturteari dagokionez, nautikari eta arrantzari buruzko ikasketak honako hauetan egiteko beken deialdia: Blas Lezo - Pasaiako Itsas Arrantzarako Ikastetxean; Bermeoko Itsas Arrantzako Prestakuntzarako Eskolan eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean. 168 bekadun izan dira (158 gizon eta 10 emakume).

Programa honek lortu du arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei eta, oro har, merkatuaren betekizunetara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiei erantzuna ematen du eta.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurr.	Emaitza
Bekadunen kopurua	120	168
Gizonezkoak	110	158
Emakumezkoak	10	10



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ARDOINB 2022 - Mahastizaintza eta ardogintzako sektorean inbertitzeko proiektuetarako laguntzak, minimis laguntzen araubidea baliatuta

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez mahastizaintza eta ardogintzako sektorean inbertitzeko proiektuetarako laguntzen deialdia egiten den 2022rako, minimis laguntzen araubidea baliatuta

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204816e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen xedea da mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean inbertsio-proiektuei laguntzea, baldin eta proiektu horiei ezin izan bazaie erantzun 2022ko deialdian, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren eta azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuaren arabera (1308/2013 (EB) Erregelamendua, mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean laguntzeko programa nazionaleri buruzkoa).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honen aurrekontua 1.110.000 €izan da eta 21 espediente bete dira, 508.781,61 euroko laguntza eta 1.896.109,35 euroko eragindako inbertsio batera.

Programa honekin estali egiten da MABen laguntzatik kanpo uzten duen aurrekontu-erabilgarritasunik eza, baliozko espedienteak eta diruz lagun daitezkeenak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	20	21
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	6	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan barne jasota dauden nekazarien eta baso-ekoizleen elkarreentzako laguntzak 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez nekazarien eta baso-ekoizleen elkarreentzako 2022ko ekitaldirako laguntzen deialdia egiten baita. Laguntza horiek 2015-2020ko Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota daude.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Asoziazionismoa sustatu nahi da, eta nekazaritza-ekoizleen elkarreak eta horien batasunak sortzea finantzatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpena elkarrekin merkaturatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Elkarrearen bizitzako lehen 5 urteetan eska daitekeen laguntza gisa ezartzen da, eta elkarrekin merkaturatzeko gai diren produkzioaren ehuneko gisa kalkulatzen da laguntza. Gehienez 100.000 euro onuradun bakoitzeko. Aurrekontu-zuzkidura 400.000 €-koa izan da, LGENF funtsekin batera finantzatutakoak, eta 400.000,00 €erabili dira. Helburua da ekoizleek banaketa-kateen aurrean negoziatzeko duten gaitasuna indartzea, elikatze-katearen lehen mailatik bidezko prezioak lor ditzaten, jarduerari eustea eta errenta duina ziurta dezaten

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	4	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Fruta-eta barazki-ekoizleen erakundeei laguntzak 2022

2.- Araua

1179/2018 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, Fruta- eta barazki-sektoreko ekoizleen erakundeen funts eta programa eragileak arautzen dituena.

558/2020 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, fruta eta barazkien eta mahastizaintza eta ardogintzaren arloan Europar Batasuneko erregelamenduak garatzeko oinarrizko araudia ezartzen duten zenbait errege-dekretu aldatzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.boe.es/boe/dias/2018/09/22/pdfs/BOE-A-2018-12836.pdf>

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/06/10/pdfs/BOE-A-2020-5899.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Erakunde ekoizleak merkatuen antolaketa komunaren oinarria dira, eta beharrezkotzat jotzen da fruta eta barazkien sektorean asoziazionismoa bultzatzea, egungo merkatuaren eskaerei aurre egiteko; izan ere, merkatu hori izugarri lehiakorra da, eta kalitatea gero eta zorrotzagoa da. Bakarrik elkartzuz, eskaintza kontzentratuz, ekoizpena eta aldizkakotasuna kontrolatuz, merkaturatze-kostuak murriztuz eta merkatuaren beharretara egokituz lortuko dute ekoizleek arrakasta. Bestalde, ekoizpen-teknikek ingurumena errespetatzeko beharra azpimarratzen da, bai hazkuntza-sistemetan, bai erabilitako materialen kudeaketan.

Fruta eta barazkien MABek fruta- eta barazki-erakundeak sustatzen ditu, eta, horretarako, FBEEetan egiten diren programa operatiboak gauzatzeko erabiltzen diren funts operatiboak finantzatzen ditu.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Batera finantzaturako laguntzak dira. EAEn bi FBEE baino ez daude onartuta. Biek dute onartutako programa operatibo bat, laguntzak jasotzeko eskubidea ematen diena.

Guztira 187.032,19 € jaso dituzte, 360.000 €-ko hasierako partidatik.

Laguntza hori gabe, ekoizleen elkarteak ez ziren sortuko, nekazaritza-politika bateratuaren lehentasunezko helburua. Mantentzeak lehen sektorea indartzen du eta biztanleria finkatzen du.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Fruta eta Barazki Ekoizleen Erakundeari atxikitako enpresak.	2	2
Eragindako gastua (milioi eurotan).	2	0,7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehiatu Sustapena 2022 - Nekazaritza, elikagai, arrantza eta basogintza produktuak EAEtik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren bidez araututako dirulaguntzak emateko 2022ko deialdia egiteko dena. Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira (Lehiatu Sustapena Programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203338e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da EAEn egoitza soziala duen nekazaritza- eta elikagaigintza-industriak eraldatutako eta merkaturatutako elikagaiak, arrantzakoak eta basogintzakoak sustatzea Euskaditik kanpoko merkatuetan.

Diruz lagundutako ekintzak honako hauek dira: erakusketari edo bisitari gisa parte hartzea izaera profesionaleko eta internazionalako azoka edo lehiaketa komertzialetan; zuzeneko misioak eta produktuak Estatuaz kanpoko merkatuetan aurkeztea; alderantzizko misioak; Estatutik kanpoko merkatuetan soilik salmenta-puntua sustatzeko ekintza puntualak eta espezifikoak; eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean egindako ikus-entzunezko katalogoak eta materialak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdian, aurrekontua 350.000 eurokoa izan da.

44 laguntza eman dira, 287.798,47 € guztira, eta eragindako inbertsioa 622.943,88 €koa izan da. EAEko elikagaien industriak ondo baloratutako eta eskatutako programa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	60	44



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

LEHIATU BERRIA 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko 2022. urteko deialdiaren oinarriak (Lehiatu Berria programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202985e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekoi-zein sektorearen lehiakortasuna areagotzea, sektore horrek elikagaien katean duen zeregina indartzea, eta nekazaritzako elikagaien industriaren garapena bultzatzea.

Lehiatu Berria programak hainbat laguntza bide aurreikusten ditu:

1. Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzak
2. Basogintzako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzak
3. Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzak
4. Nekazaritzako, arrantzako, akuikulturako, ur mineral naturala, alkoholik gabeko edarietako edo hartzitutako edarietako produktuak nekazaritzako produktuetatik, ardoa izan ezik, konbinatuta lortzeko inbertsioak egiteko laguntzak
5. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrietan elikagai ekologikoak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egiteko laguntzak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Hasierako aurrekontua 21.638.939,84 eurokoa zen, eta 9.891.340,60 euroko laguntzak ebatzi dira. 165 proiekturi eman zaie laguntza, eta 40.345.910,48 euroko inbertsio induzitua egin da.

Laguntzaren zati bat funts propioekin ematen da, eta beste zati bat FEADER, EURIS eta FEMP funtsekin finantzatzen da.

Laguntzaren batez besteko intentsitatea ia % 24,5ekoa da.

Inbertsio hori guztia gure industrien modernizaziora eta lehiakortasunaren hobekuntzara bideratuko da, bideragarritasuna eta lanpostuen mantentzea ziurtatuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	200	165
Eragindako inbertsioa	50	40



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

MAE Sustapena 2022/2023 - Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako eta -ekintzetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 14koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein -egintzetarako laguntzen deialdia, 2022. urterakoa, egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105403e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegorako Europako Erkidegoko erregelamenduko eta estatuko oinarrizko araudiko mahastizaintza eta ardogintzako sektoreko Erkidegoko laguntza neurrien garapena eta aplikazioa ezartzea hirugarren herrialdeetako merkatuak sustatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdian 25 espediente onartu dira; guztira, 8.772.361,39 euroko laguntza eta 19.070.350,83 euroko inbertsio induzitua.

Europako funtsekin finantzatzen diren laguntzak dira, eta EAEko proiektuak autonomia-erkidego guztietako proiektu guztiekin lehiatzen dira funtsekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	32	25
Eragindako gastua	18	19



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

MAE Inbertsioa 2022 - Mahastizaintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita mahastizaintza eta ardogintzako sektorea bultzatzeko programaren inbertsiorako laguntzen 2022. urteko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104669e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko enpresen errendimendu globala hobetzea eta merkatuko eskarrietara egokitzea, bai eta lehiakortasuna handitzea ere, ardogintzako eraldaketa- eta azpiegitura-instalazioetan egiten diren inbertsio ukigarri edo ukiezinei finantza-laguntza emanez, bai eta merkaturatze-egitura eta -tresnei ere, energia aurrezteak, energia-eraginkortasun globala eta prozesu jasangarriak hobetzeko ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko deialdian 28 proiektu onartu dira; guztira, 2.348.231,66 euroko laguntza eta 7.940.314,61 euroko eragindako inbertsioa.

Europako funtsekin finantzatzeko diren laguntzak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko proiektuak gainerako autonomia-erkidego guztietakoekin lehiatzen dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	30	28
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	15	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

BASQUEWINE 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2022ko ekitaldirako laguntza-deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoan ardoa, sagardoa eta artisau-erara egindako garagardoa sustatzeko "Basque Wine programa".

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204309e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza honen helburua da BASQUE WINE markako produktuen barne-merkataritzan Euskadiko ardoaren, sagardo naturalaren eta eskuz egindako garagardoaren kontsumitzaileen artean sustatzea. Laguntza honen ondorioetarako barne merkataritza tzat jotzen da Espainiako Estatu barruan merkatu guztiak.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako minimis erregimenari atxikita daude laguntza horiek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Laguntza horren bigarren deialdia izan da, sektoreak beste laguntzarik jasotzen ez zuten eta funtsezkotzat jotzen ziren sustapen-jarduera batzuetarako egindako eskaera gisa sortu zena. Eskaera entzun eta 250.000 euroko aurrekontu-zuzkidura ezarri zen. 22 proiekturi eman zaie laguntza, 98.250,64 €guztira, eta gastu induzitua 196.501,25 €koa izan da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Heldutako enpresa kopurua	50	22



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HANDITU 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2022rako nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzen deialdiaren oinarriak (2022ko Handitu programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203595e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzak. Urterokoak edo hainbat urtetarako izan daitezkeen inbertsioen programa batera egokituko dira laguntzak, aurkezten diren proiektuak burutzeko denboraren arabera eta ordainketak egiten diren unearen arabera.

HANDITU programak zenbait laguntza-ildo jasotzen ditu:

1. Lehengaiak EBFTren I. eranskinean jasota dituzten elikagaiak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzak.
2. Basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzak.
3. Honako jatorri hauetako elikagaiak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handietarako laguntzak: nekazaritzako, arrantzako, akuikulturako produktuen, ur mineral naturalen, edari ez-alkoholikoen edo nekazaritzako produktuetatik abiatuta hartzitutako edarien (ardoa izan ezik) konbinazioa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-zuzkidura 25.000.000 eurokoa izan da. 5 proiektu onartu dira, guztira 15.664.133,96 euroko laguntza-zenbatekoarekin eta 69.316.748,15 euroko inbertsio elkartuekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	4	5
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	75	69



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HANDITU INNOVA 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko irailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2022rako, nekazaritza-ekoizpeneko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzen oinarriak onestekoa (2022ko Handitu Innova programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204602e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritza-ekoizpeneko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzak. Urterokoak edo hainbat urtetarako izan daitezkeen inbertsioen programa batera egokituko dira laguntzak, aurkezten diren proiektuak gauzatzeko denboraren arabera.

Honako hauek dira laguntzen helburuak:

- Nekazaritza-ustategien lehiakortasuna eta eraginkortasuna hobetzea ekoizpen-ratioetan, baita berrikuntza teknologikoa bultzatzea ere, euskal ekoizpen-sektorearen trakzio-elementu gisa.
- EAEen finkatutako nekazaritza-ustategietako diharduten enpresek ingurumenean eragin txikiagoa izateko, efizientzia energetikoa hobetzeko, ura aurrezteko eta arazteko eta hondakin eta azpiproduktuak aprobetxatzeko baliagarria izatea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-zuzkidura 5.000.000 eurokoa izan da. 2 proiektu onartu dira, guztira 4.145.736,47 euroko laguntza-zenbatekoarekin eta 8.386.594,50 euroko inbertsio elkartuarekin. Urriaren 26an argitaratu zen, eta, horren ondorioz, ezinezkoa izan zen urtearen barruan izapidetzea, eta 2023an ebatzi zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	4	2
Eragindako inbertsioa (milioi eurotan)	15	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzak

2.- Araua

43/2017 DEKRETUA, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

AGINDUA, 2022ko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena 2022ko ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

43/2017 DEKRETUA, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

AGINDUA, 2022ko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena 2022ko ekitaldirako.

Elikagaien Kalitate Eta Industriako Zuzendariaren 2022ko Irailaren 29ko Ebazpena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuaren 2022ko Martxoaren 8ko Aginduaren baitan, hots, nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideko laguntzen 2022ko deialdiaren oinarriak onartu zituen aginduaren baitan, eskatutako laguntzak eman eta ukatzen dituen (argitaratu gabeko onuradunen zerrenda, eta FEADER ordainketen zain).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu orokorra: Nekazaritzako ekoizpenaren eta produktuen kalitatea hobetzea.

Neurri horrek, funtsean, produktuak elikatze-katean hobeto integratzen lagunduko du, eta, horretarako, gure sektore ekoizleak katearen barruan balio erantsia sortzeko duten zeregina indartuko da, Erkidegoko merkatuan kalitate ziurtatua eta aitortua duten euskal produktuak gehiago eta hobeto kokatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek eta produktuek Euskadiko kalitate bereziaren eta ziurtatuaren estrategian parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatuz, hori baita gure nekazaritza-politikaren eta gure gastronomia ospetsuaren oinarria.

Horretarako, aipatutako aginduan bi laguntza-ildo ezartzen dira:

M03.1 Nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza (elikagaien kalitate-erregimenetan nekazariak lehen aldiz sar daitezten sustatzeko).



M03.2 Ekoizle-elkartek barne-merkatutarako martxan jarritako informazio- eta sustapen-jardueretarako laguntza (Europa mailan kalitate bereiziko produktuen informazio- eta sustapen-jarduerak diruz laguntzera bideratuak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an, 143 onuradun izan ziren kalitate-erregimen batean lehen aldiz parte hartu zutenak (127 izan ziren 2021ean). Aurrekontuaren % 73,78 gauzatu da.

Kalitatezko produktuen informazio- eta sustapen-jarduerak egiten dituzten ekoizle-elkarteentzako laguntzen ildoan, 9 izan dira onuradunak (7 eskaera onartu ziren 2021ean). Hemen aurrekontuaren % 100 gauzatu zen eta aurrekontu-kredituaren gehikuntza gaitu behar izan genuen.

2022a egungo LGParen indarraldiaren azken urtea izan da, eta pandemiaren susperraldia berretsi du. Artatutako espedienteen kopuruak gora egin du aurreko urtearen aldean, bai II. kapituluan (nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntzak), bai III. kapituluan. Azken hori, informazio- eta sustapen-jardueretara bideratua, oso interesgarria da, sektorearentzat duen garrantzia dela eta. Bi kasuetan, EAEn erabakia hartu dute bi laguntza-ildo horiek NPBren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jarraitzeko, hala nola 7131 eta 7132 interbentzioak, 2021/2115 (EB) Erregalamentuaren 77. artikuluan (Lankidetzak) jasoak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Parte hartu duten nekazari- eta abeltzainen kopurua	200	143
Lagundutako entitate-kopurua (informazio eta sustapen-kanpaiak)	12	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarteak Elikadura - EAEn elikagaien sektoreko elkarte eta federazio profesional eta enpresariaiei laguntzak 2022

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-deialdi bat argitaratzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariaiei laguntzak emateko 2022ko ekitaldian, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren esparruan («Elkarteak» programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204398e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honetarako 235.782,00 euro erabili dira 2022rako, honela banatuta:

- Elikagaien sektorerako: 100.000,00 euro.
- Nekazaritza-sektorerako: 135.782,00 euro.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiari izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Sektorearen egituraketa modernizatzen eta antolaketa-egiturak babesten lagundu nahi da.

Nekazaritzako elikagaien industriako elkarte profesionalentzako laguntza 16 proiekturi eman zaie laguntza, 99.957,14 euroko dirulaguntzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuan jasota zeuden 100.000 euroetatik.

Gastu hautagarria 739.996,01 eurokoa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Número de ayudas	20	16



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko animalien elikadurako operadoreen-sektorerako ezohiko laguntzak, Errusiak Ukrainari egindako erasoaren ondoren ekonomia babesteko estatuko laguntza-neurriei buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionalaren barruan

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez ezohiko estatu-laguntzak ezartzen baitira animalien elikadurako operadoreen sektorearentzat, Errusiak Ukrainari egindako erasoaren ondoren ekonomia babesteko estatu-mailako laguntza-neurriei buruzko Aldi Baterako Esparruaren barruan.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204541e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorio ekonomikoei aurre egiteko ezohiko aldi baterako 2022ko laguntzak. Abeltzaintza-erabilerarako animalia-elikaduran diharduten operadoreei zuzenduta daude laguntzak, helburu hartuta abeltzaintzaren sektoreari laguntzea, lehengaien hornidura bermatzea eta, hartara, etxalde-animalien elikaduraren sargai nagusien prezio-igoerak geldiaraztea, Errusiak Ukraina inbaditu izanak larriki eragin baitie.

Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondoren ekonomia babesteko estatu-laguntzen neurriei buruzko Aldi Baterako Esparruan sartzen dira laguntza hauek. Esparru hori Batzordearen 2022ko martxoaren 22ko Jakinarazpenaren (2022/C 131 I/01) bidez arautzen da (2022ko martxoaren 24ko EBAO, 65. zk.).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-zuzkidura 1.850.000 eurokoa izan da. 14 operadoreari eman zaie laguntza, 1.837.575,20 € guztira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez dago dirulaguntzen plan estrategikoan sartuta, aparteko laguntza delako.